

Ukar Itzarbeibarko doktrina (1865)

JOSE MARIA SATRUSTEGI*

Iruñetik Lizarrako errepidean Erreniega mendiaren hegoaldera dago Nafarroan Itzarbeibarra. Gares hiriburu duela –udal berezia izan arren– bertatik ekialdera doan bidean aurkitzen da Ukar, Obanos eta Eneritz igaro ondoren. Hogeigarren mendearen sarrera arte euskaldunak izanak dira herri hauek. Nire aitona uzta biltzen ibilia zen Erribera aldean eta Garesen euskara entzutearekin bere etxean zegoela iduritzen zitzaiola entzuten genion, hango hizkeraren pasarte bitxiak errepikatzen zizkigularik tarteka.

Ukar herriak 56 etxebizitza zituen XIX. mendearen hasieran eta 290 biztanle. Granada de Ega izeneko kondeak bazuen han bere jauregia eta herriko etxe nahiz lur guztien petxak ordaindu behar zizkioten hango jendeek. Alkatea izendatzeko eskubidea ere bazuen. Baina herria, izatez, erregegoarena zen eta inguruko beste herrien antzera gobernatzen zen ibarreko aldunaren eta herritarrek izendatutako beste karguen bidez.

Orain argitaratzen ditugun euskal testuok Ukargo ‘Gaztelu’ etxean agertu ziren eta Jose Yoldi Roncal, etxeko nagusiak, bere eskuz helarazi zizkidan duela zenbait urte. Bi eskuizkribu desberdin dira, berez: sermoi baten orrialde erdiko zatia, eta Astete katiximaren euskal itzulpena. Larru azalez josirik zegoen bigarren liburuskak eta gaineko azalaren atzean ere bazituen zirribo-roak.

Hiztegiari dagokionez euskara oso lardaskatua darabil, erdal hitzez barra-barra baliatzen baita. Garrantzia badu, halere, euskara galdu zen lurralde baten lekukoa den aldetik eta beranduko aitorpena, 1865ekoa alegia, bestalde. Data zehazten erabilitako iritzia honako hau izan da: doktrinaren liburuskak baditu beste hamabost orri familiako salerosketa, diru aurreratze eta ordainketak erdaraz jasotzen dituztenak, antzeko grafiarekin idatziak eta hiru urtetako kontuak dira, 1865-1867. ekoak hain zuzen. Bi tinta mota nabarmentzen

* Academia de la Lengua Vasca -Euskaltzaindia.

dira eta 1865ean idatzitako oharrena euskal testuaren modukoa da. Era honetako datuak datoz: “Dia 30 de Enero del año 1865 llebó jose Cía nueve cantaros De bino de ordea. Pago 9 de Vino Vcar Bargota”. Beste batek hau dio: “Dia 2 de Setienbre delaño 1865 seles pago la mesada alos pastores del ermano Bicente que tiene enelordi trigo ados robos por mes son cuatro robos”.

Iruñerriko euskararen antzekoa da, noski, eta argitaratzeaz bestalde, azalpen xumeren bat edo beste ere emango da hemen, ikerleek sakonago aztertzeko utziz orohar edukia bere osotasunean.

Aditz iraganaren azken *-n* galdu ohi da, adibidez: *au hizan ce motivoa* (4), *juance* (21), *Yru persona Divinoetatic cein egince guizon?* (523). *Jangoicoac errevelatu baizio Eliza Ama Sanduari* (459). Behin edo beste hautsi ohi da lege hau, baina salbuespen moduan: *nork erran zuen credoa?* (441). Antzeko bikoiztasuna nabarmentzen da zenbait atzizkirekin: *icusten ditugulaica* (14), *eguiten dutelariqua* (12). Eta, alderantziz, beste batzuetan: *cituelaican* (19).

Iruñerriko erakuslearen *goiec* forma azaltzen da: *zure begui misericordiosco goiec* (Salbe, 91). Horrek ez du kentzen *avec* eta *avec* bezalako formak erabiltzea: *Gauza avec arla pasacen dire* (2), *Divinidadearenac dire avec* (130).

-z letraren ordezt *-s* normalki erabiltzen da, berdin hitzetan nola aditz formetan: *Jangoicoaren leguesco mandamentu santuac* (105), *obras eta virtutes* (144), *lendabisicoa siñestatzea dela Jangoicoa bacarra gucis poderosa* (131). *Bulusiec besticea* (198), *Estaquienari eracustea* (183), *zuc otoiz eguinazazu guregatic meresi dezazquigun* (100). Era berean, *-s* agertzen da batzuetan *-j* consonantearen ordezt, baina ez beti. Adibidez, *jaiki/saiki: Goacera joatean, saiquicean* (392), edo *jakin/sakin: lendabisicoa, saquitea cer bear duen siñestatu. Nola saquiñendu cer bear duen siñestatu?* (422).

Hitz nahiz aditz amaierako *-a* / *-e* aldaera nagusitzen da: *Andre Marie virjinari* (241), *Cembat Jangoico dire?* (281). *Cergatic baite Christo Crucificatua-ren figura* (367).

Genitiboan *-rena* / *-aña* formen parekotasuna ezaguna da, biak darabilzkielarik idazki hauen egileak: *bata monarca argitasunaña, eta bercea Principe iluntasunarena* (11).

Laburduren atala idazkera hutsezkoa da batzuetan, eta hitz laburtuen kasua beste askotan. Azken hauen artean dago adibidez *gruce: escuyeco beaz andias gruce eguitea* (372), *echetic atracean* (395), *Cein da oracioric oberna?* (728), *Cer entendazezu Christoren guizonagatic?* (360); edo *arlar* modukoak: *Gauza avec arla pasacen dire* (2). *Yago* konparaketakoa erabilera ezaguna da euskalkian: *onesicenzaitut gauza gucioc baño yago* (168). Grafari buruz *aunq.* dio erd. ‘aunque’ esateko idazkera laburtuan. *Sn. Cip.* Zipriano santua da, eta *Sn. Juan Cristo*, lerro gaineko marrarekin, San Juan Crisostomo irakurri behar da. *Xptic* letren azpian ‘Kristioac’ dago eta *Xpren Mag.* laburdurak ‘Kristoren Magestadea’ suposatzen du grezieraren idazkera landua baliatuz sermoian.

Doktrina batek ez du izendegia aberasteko aukera gehiegirik eskaintzen, baina hitz aipagarriren bat edo beste bada testu hauetan, hala nola, *becosque*, ‘kopeta’, ‘bekokia’ esateko: *lembisicoa becosquean* (373), *assi becosquetic bularretaraño* (388). *Viciquedia*, ‘bizikide’ edo espos laguna: *Proximo lagunaren viciquedia ez deseacea* (116). *Aguitu: nola aguitucen batalla* (16). *Causitu: estu causituco lecu apropositoagoric* (22). *Orci*, ‘hortzi’: *illec orcicea* (200). *Enten-*

datu: ematen digute entendacera (13) *eta aconsola(tu): aconsolacen dela arla vi-
cias* (36).

Hitz hasierako *h-* letrari dagokionez ez da maiz ateratzen eta erabilera ez da esanguratsua: *hugalde* (19), *Haitaren* (391), *hicenean* (40), *Hillec orcicea* (200). Erdal hitzen grafia errepikatzen da, *honrracea* (110), *humanidade* (129) edo *heredero* (918) bezala.

Euskara gogoratzen duten atalak aurki daitezke, han-hemenka, Itzarbe-ibarreko herrietan. Muruzabalen, adibidez, Udaleko kontuen liburu batean (1760-1818) honako kopla bitxi hau ikus daiteke azalaren barneko aldean: ‘Desde las Nauidades / hasta los Reyes / por debajo de la cola / cagan los bue-yes, / y si esto no es así / *varacoporra zarequin / ipurdi ssossi*’.

Berriemailearen zalantzazko irakurketa gora-behera, euskal zatia honela uler daiteke: ‘y si esto no es así / *varaco (p) orrazarequin / ipurdia sossi*’.

Amaitu aurretik eskerrak eman nahi dizkiot J. M. Jimeno Jurio adiskide-ari izkribuaren jabea eta nirekiko bitartekotza estimagarriagatik.

Eskuizkribuaren lerroak kontuan hartu dira zenbaketa egiteko, hemen galdera-erantzun laburrak elkaturik eman arren.

I. GARIZUMAKO LEHEN IGANDEA

Basamortuan Jesusek izandako tentaldien gain egindako azalpenaren atala.

Ductus e(st) Jesus in desertu(m) a Spiritu ut tentaret(ur) a Diabolo. (Mathei. Cap. 4, v. 1)

Esta soldadoric ezpaita valiente campañaric estenean, baña campañara atra viarbaute animoric valientenac acobardacen dire. Gauza evec arla pasacen dire munduontaco batalla etan. Baña ez arla esta pasacen baicic antes bien avivacen animo varonilac, guerra espiritualetan batallatu viar dutenean, eta au hizan ce motivoa fabricaceco Romanoec estatuac, eta Lacedemonioec triunfadoreri.

Iduridu Eliza ama Sanduac estilacenduela lo mismo egungo egunean cergatic proponicen dizquigu bi valeroso combatiente, bata Monarca /10/ Arguitasunaña, eta bercea Principe iluntasunarena eguiten dutelariqua beren encuentroa batallaceco oracioaten ondoan ematen digute entendacera icusten ditugulaica ayec peleacen nula guc icasi viar dugun garaicen. Au da nola sentiduen San Juan Cris(os)to(mo)c: *D(omi)nus diabolo tentationis ocasionem dedit, ut eo victo, vincendi quoq(ue) nobis formam relinqueret.*

Nola aguitucen batalla gau explicacen dute San Mat., eta S. Cyp. Bata-
yaturic Xpren Mag. Jordaneco hugaldeco uretan cituelaican ya ogueyta amar urte. Spiritu Santi Jaunaren instintos /20/ juance desiertora. Cergatic naitue-
nac logratu triunfoac yrur esaietatic nola baitirade mundua, demonia eta ara-
guia estu causituco lecu apropositoagoric, eta Maestro divinoac ematen digu
exemplozat bere retiradau. Au baita alaere eracustea aun justoeneri, cergatic
aunq(ue) badaucazquite concienciac garbituric veti ofrecituco zaiquote
peleacea tentaciotan eta cembatenas dauden prevenituric Xpti(oa)c eguinen
dituste tiroac seguridade gueyagocoarequi lograceco triunfoac. //

Vaña ô Jaun Soberanoa, zuc aunq(ue) ematen badizquiguzu avisoac, pre-
venicen badizquiguzu arma poderosoac, non daude gure /30/ valentiac, non
ditu triunfoac victorietan Demonien contra logratuditugunac zure eracuste

amoroso ortas, ontan paracen dirade justoena ez padago libre demonioaren tentaciotatic cer eguinendu becatariac?, baña nago ni eci onec gutiago caso eguitenduela cergatic dauca arima ilic eta aconsolacen dela arla videnceas vata vadatela.

II. DOCTRINA DE BASCUENCE

Gruce Sanduaren, Señalegatic, gure esayetatic libragayzazu gure jaun ta Jaungoicoa. Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Sanduaren hicenean A(me)n Jesus. /40/

Aita gurea Ceruetan (dagona) zaudena, santificabedi zure icenori, etorribedi zure erreñuori, cumplibedi zure borondate sanduori, Ceruan becala lurrean ere, emandezaguzu guri egunorosco oguie, egun eta beti, barcazazquiguzu guri gauren zorrac, guc nola barcacen baizquiotegu gu zorgaitusteneri, ez gaizazula uzi tentacioan erorcera. Libragaizazu gai- // cetic Amen Jesus. /50/

Ave Maria. Jangoicoac salvazaitela Maria, gracias betea, Jauna da Zurequi, bedicatu zara Andre gucien erlean, eta bedicatu da, zure saveleco frutu bedicatu Jesus. Santa Maria, Jangoicoaren Ama, zuc otoiz eguinazazu gu becatariengatic, oray eta beti gure erioceco orduan Amen Jesus. /60/

Credo. Nic siñestacen dut Jangoico Aita gucis poderosoaren baitan, Ceruaren, eta lurraren Criadorearen baitan; eta Jesuchristo arren Seme Jaun barraren baitan, cein concebitu baice Ama virginaren entrañetan Espiritu Sanduaren obras eta virtutes, ja- // yoce Virgina Mariaren gantic pasatuzuela pasio, doloresco, Poncio Pilato, Juezaren manuaren azpian, gurucean /70/ grucificatu zute, ilzute, orcizute, jauchi ce limboetara, han zauden Anime Sanduen atracera; ilte irugaren egunean erresucitatucela, illen ertetic vicien ertera, igance Ceruetara, an dagola jariric, Aita eternoaren escuyetaco aldean, eta arren igualdadean, nondic etorrico baita azquen juicio egunean onen ta gaistoen juzgacera. Nic alaber siñestacendud /80/ Espiritu sanduaren baitan, Eliza Ama Sandu Catholicocan Sanduen comunioan, becatuen barcacioan, araguiaren eresurecioan vici seculacoan A(me)n. J(esu)s. //

Salve. Jangoicoac Salvazaitela Reina, misericordiaren Ama, gure vicie, dulzura, eta esperanza. Salve, zure gana deies gaude Evaren ume desterratuac, ayes, negares, eta suspiros veteric, valle negarresco onetan; ea bada Andrea, /90/ gure Abogada, izulizazquizu zure begui misericordioscogoiac gure gana, ta desterroau cumplituondoan, eracusi zaguzu zure sabeleco frutu bedicatu Jesus. Ô clementisima! Ô piadosa! Ô dulce Virgine Maria! Jangoicoaren Ama Sandue, zuc otoiz eguinazazu gure gatic mereji dezazquigun alcancea Jesu Christoren prometimentu Sanduac Amen Jesus. /100/ //

Jangoicoaren Leguesco Mandamentu Sanduac dire amar. Lemdabisico irurac pertenenen zaizquionac Jangoicoaren onrrari, eta berce zazpiec proximo lagunaren provechuari.

- 1^a. Jangoicoa onesicea gauza gucien gañetic.
- 2^a. Juramenturic vanoan ez eguitea.
- 3^a. Jayac eta igandea guardacea.
- 4^a. Aita, eta Ama, eta zarragoac honrracea. /110/
- 5^a. Ez nior hilcea eta ez deseacea.

Doctrina de Sacuence

In hoc Sanduaren, Sinalagatis, puer
 enquetatis libragagacaw gure jaun
 ta Saguina. Ditarren, eta Lemcarren,
 eta Espiritu Sanduaren hienaren A.
 Juy. 30

Et ita quia Ceruatau Saguetuau-
 duā, santificandi eare icenari,
 et videri eare erretuari, campli-
 bedi eare hiruade Sanduoni, Ceruan
 beala Larrean ore, mandagaguen ga-
 ri eguonoren gure, egue eta beti, bar-
 ceatagaguen gure gauron comat, que
 nola bararen baizguitega ga sor-
 gaitu-bereri, et gaitacula uai ten-
 tacion erretore, libragagacaw gure

- 6^a. Luxuriasco becatutic apartacea.
- 7^a. Ez niori deus ebastea, eta ez deseacea.
- 8^a. Ez niori falso testimonioric goiticea, eta ez guezuric erratea. //
- 9^a. Proximo lagunaren viciquedia ez deseacea.
- 10. Jangoicoac ematen digunarequi contentacea.

Amar Mandamentu Sanduac encerrazendire bietara. /120/ Lendabisicoa Jangoicoa onesicea gauza gucien gañetic; Bigarrena proximo laguna gauren buruac bezala Amen Jesus.

Articulo fede Sanduscoac dire amalau; lendabisico zazpiac pertenezen zaizquionac Divinidadeari; eta verce zazpiac Jessu christo gure Jaunaren humanidade Sanduari: Divinidadearenac dire ovec. /130/

Lendabisicoa siñestacea dela Jangoicoa bacarra gucis poderosoa. //

- 2^a. Siñestacea dela Aita.
- 3^a. Siñestacea dela Semea.
- 4^a. Siñestacea dela Espiritu Sandue.
- 5^a. Siñestacea dela Criadorea.
- 6^a. Siñestacea dela Salvadorea.
- 7^a. Siñestacea dela Glorificadorea. /140/

Verce zazpiac humanidade sanduenac, dirade oec.

- 1^a. Siñestacea Jesu Christo gure Jauna guizon bezambates concebituzela Ama Virginaren entrañetan Espiritu Sanduaren obras ta virtutes.
- 2^a. Siñestacea jayocela Virgine Mariaren gandic gueldicen celaric Virginic erdibañolen, erdicean, eta erdiesguerostic veti Virginic.
- 3^a. Siñestacea, pasatuzuela pasioa /150/ //
- eta eriocea gu eta mundu gucie Salvaceagatic.
- 4^a. Siñestacea, jauchicela limboetara an zauden Anima Sanduen atracera.
- 5^a. Siñestacea, ilta irugarren egunean erresucitatu cela illen ertetic vicien ertera.
- 6^a. Siñestacea, igancela Ceruetara, eta an dagola jarriric aita eternoaren escuyetaco aldean, eta arren igualdadean. /160/
- 7^a. Siñestacea, etorrico dela azquen juicio egunean, onen ta gaistoen juzgacera; oney emañen diotela Paraisoco glorie cergatic goardatu baizuste Mandamentu Sanduac, eta gaistoei //

Ynfernucio penac, cergatic ez paizuste goardatu Mandamentu Sanduac Amen Jesus. /170/

Eliceo Mandamentu Sanduac dire borz.

- 1^a. Jaietan eta igandetan meza osoa enzutea.
- 2^a. Urtean bein berere confesacea edo lenago barimbadu erioceco peligroric, edo comecatu bearbadu.
- 3^a. Bazqua garizumacoetan comecacea, edo lenago barimbadu erioceco peligroric.
- 4^a. Eliza Ama Sanduac manacen duenan barucea.
- 5^a. Amarren, primiciec, oso ta leal eguitea. Amen Jesus. /180/

Obra Misericordioscoac dire amalau. Lemdabisico zazpiac espiritua- // leac, verce zazpiac corporaleac: Espiritualeac dire avec.

- 1^a. Lendabisicoa, estaquienari eracustea.
 - 2^a. Conseju bear duenari conseju ematea.
 - 3^a. Uts eguiten duenari corregicea.
 - 4^a. Injuriec barcacea.
 - 5^a. Tristeia consolacea.
 - 6^a. Sufricea pacenciarequi proximo lagunaren adversidadeac eta flaquezac. /190/
 - 7^a. Jangoicoari otoiz eguitea illen ta viciengatic.
- Verce zazpiac corporalac dire ovec.
- Lendabisicoa eriec bisitacea.
- 2^a. Goseac dagonari jatera ematea.
 - 3^a. Egarriac dagonari edatera ematea.
 - 4^a. Cautivoac rescatacea. //
 - 5^a. Bulusiec besticea.
 - 6^a. Pobre peregrinoari ostatus ematea.
 - 7^a. Hillec orcicea. Amen Jesus. /200/
- Elizaco Sacramentu Sanduac dire zazpi.
- Lendabisicoa, batayacea.
- 2^a. Confirmacea.
 - 3^a. Confesacea.
 - 4^a. Comecacea.
 - 5^a. Oliacea.
 - 6^a. Ordenacea.
 - 7^a. Matrimonio Sandua. Amen Jesus.
- Becatu Capitalac dire Zazpi.
- Lendabisicoa, Sobervia.
- 2^a. Avaricia. 3^a. Luxuria. 4^a. Ira. 5^a. Gula. 6^a. Embidia. 7^a. Pereza. /210/
- Zazpi vicioen contra, zazpi virtute.
- Soberviaren contra, Humildadea. Avariciaren contra, Largueza. //
- Luxuriaren contra, Castidadea. Iraren contra, Paciencia.
- Gularen contra, Templanza. Embidiaren contra, Caridadea.
- Perezaren contra, Diligencia.
- Virtute Theologalac dire iru.
- Lendabisicoa fedea. 2^a. Esperanza. 3^a. Caridadea. /220/
- Virtute Cardinalac dire lau.
- Lendabisicoa, Prudencia. 2^a. Justicia. 3^a. Fortaleza. 4^a. Templanza.
- Animan esayac dire yru.
- Lendabisicoa Mundua. 2^a. Demonioa. 3^a. Araguaia. //
- Animan potenciac dire iru.
- Lendabisicoa Memoria. 2^a. Entendamentua. 3^a. Vorondatea. /230/
- Sentido Corporalac, dire borz.
- Lendabisicoa beguis icustea.
- 2^a. Bearries Aicea.
 - 3^a. Sudurres urrin eguitea.
 - 4^a. Agos gustacea.

5. Escus ta oñes uquicea edo palpacea.

Novisimoac dire lau.

Lebabisicoa eriocea.

2^a. Juicioa. 3^a. Gloria. 4^a. Ynfernue. /240/

Ni becataria confesacennaizayo Ceruetaco jaunari, Andre Marie // Virginiari, San Miguel Anguiruari, San Juan Baustistari, San Pedro eta San Pablo Apostoloeri; Ceruan diren Sandu eta Santa guciei; eta ayen lecuana nere aita confesoreari; eguin dutela becatu, izes, obras, eta pensamentus: Jauna enea da culpa, Jauna ene da culpa, /250/ Jauna enea da culpa, gucis aundie; argatic otoiz eguitendiot, Andre Maria Virginari, San Miguel Ainguiruari, San Juan Bautistari, San Pedro eta San Pablo Apostoloeri, Ceruan diren Sandu eta Santa guciei, eta aien lecuana nere aita confesoreari, // otoiz eguinzaten neregatic nere jaun eta Jangoicoari, Amen Jesus. /260/

Jesu Christo nere jauna, Jangoico ta guizon eguiascoa, nere Criadorea, nere Redentorea, cerengatic zaren jaunbat ain ona; onesicenzaitut gauza gucioc baño yago, damu dut jauna, damu dut jauna, biotz gucitic, eta ofenditues, eta eguitendut proposito firmebat ez berris becatuic eguiteco, confesaceco, confesoreac ematendiren /270/ penitencia cumplieco, Jauna nic ofrecendizquizut nere vicie, obra, // eta trabajuec, nere becatuen satisfaciotan, eta dauquet esperanza, barcatuic, emaindirazula gracia emendaceco eta perseveraceco, orren servicio sanduan erioceco orduraño, Amen Jessus. //

Doctrina de Bascuence

P. Cembat Jangoico dire? R. Bat Jauna.

P. Cembat Persona? R. Yru jauna. /280/

P. Cein dire? R. Aita, Semea, eta Espiritu Sandua, iru persona distinto eta Jangoico verdaderoat.

P. Aita jangoicoa da? R. Bay jauna.

P. Semea jangoicoa da? R. Bay jauna. /290/

P. Espiritu Sandua Jangoicoa da? R. Bay Jauna. P. Yru Jangoico dire? //

R. Ez jauna iru persona distinto ta jangoico verderoat.

P. Nor da Aita?

R. Da Trinitate Sanduco lendabisico persona divinoa ceñec engendratu baizue seme bacarbat igual esencie eta distinto persona /300/.

P. Nor da Semea?

R. Da Trinitate Sanduco bigarren persona divinoa, Aita eternoac engendratua.

P. Nor da Espiritu Sandua?

R. Da Trinitate Sanduco irugarren persona divinoa Aitaren ta Semearen amoriotic ta borondatetic eldudena.

P. Yru persona divinoetatic cein eguin ce guizon? /310/.

R. Bigarrena cein baita Semea. //

P. Non eguince guizon?

R. Ama Virginaren Entrañetan.

P. Noren obras?

R. Espiritu Sanduaren obras ta virtutes.

- P. Cembat gauza obratuzitue? R. Lau jauna.
P. Cein dire?
R. Lemdabisicoa Espiritu Sanduec Ama Virginaren entrañetan odol chorta bates formatuzue corpuzbat 2^a. criatuzue animabat: /320/ 3^a. juntatu citue anima corpuzarequi:
4. Trinitate sanduco bigarren persona divinoa baita Semea, artuzue gure naturaleza ta gueldituce gangoico ta guizon eguiñic.
P. Jangoico ta guizon eguinesguerostic nola deizen da? /330/ //
R. Jesu Christo.
P. Cembat naturaleza du Jesu Christoc? R. Vi jauna.
P. Cembat entendamentu? R. Vi jauna.
P. Cembat Borondate? R. Vi jauna.
P. Cein dire?
R. Divinoa ta humanoa, Divinoa Jangoico bezambates eta humanoa guizon bezambates /340/
P. Cembat memoria du Christo gure jaunac.
R. Bat jauna.
P. Divinoa edo humanoa?
R. Humanoa Jauna.
P. Cergatic ez tu memoria Divinoric?
R. Cergatic Jangoico bezambates gauza guciec baitauzqui p(ro)nto. //
P. Cembat persona arquicen dire Christo gure Jaunaren baitan? /350/
R. Bat jauna.
P. Divinoa edo humanoa.
R. Divinoa jauna.


Primera parte

- P. Christioa zara?
R. Bay jauna Jangoicoaren graciagatic.
P. Nondic duzu Christioaren hicena?
R. Christo gure Jaunaren gandic.
P. Cer naidu erran Christioa?
R. Christoren guizona.
P. Cer entendazenzu Christoren guizonagatic? /360/
R. Christoren fedea duen guizonac cein profesatu baizue batayacean eta dagona obligaturic arren servicio sandura.
P. Cein da Christoren señalea?
R. Gruce Sandua Jauna. //
P. Cergatic? R. Cergatic baite Christo Crucificatuaren figura.
P. Cembat modutara da? R. Bietara Jauna /370/
P. Cein dire? R. Ceñacea eta Santiguacea.
P. Cer da Ceñacea?
R. Escuyeco beaz andias iru gruce eguitea. Lendabisicoa becosquean, Bigarren agoan; Yrugarren pechoetan minzazen gadelatic gure gaun eta Jangoicoan.
P. Ceñazait. Gruce Sanduaren etc.
P. Cergatic itenduzu grucea becosquean?
R. Jangoicoac libragaizquien pensamentu gaistoetatic /380/
P. Cergatic agoan?

- R. Jangoicoac libragaizquien iz errate // gaistoetatic.
 P. Cergatic pechoetan?
 R. Jangoicoac libragaizquien obra ta desseo gaistoetatic.
 P. Cer da Santiguacea?
 R. Escuyeco bi beazas grucebat eguitea, assi becosquetic, bularretaraño; ezquerreco soñetic escuyecoraño inbocacen dugularic Trinitate Jaun Poderoso /390/
 P. Santiguazaite. Haitaren etc.
 P. Noiz usatubear duzu señale ortas?
 R. Dembora gucietan, Especialmente goazera joatean, saiquicean, eche-
 tic atracean, Elizara sarcean, eta atracean, ta verce gañeraco obra on gucietan.
 P. Cengatic amberce aldis? //
 R. Cergatic gure enemigoac baitaude tentacen ta ayen apartaceagatic /400/
 P. Cer enemigo dire oyec?
 R. Mundua, Demonioa, eta Araguaia.
 P. Badu gruceac oien contra virtuterico? R. Bay jauna.
 P. Nondic izanzue virtuteori?
 R. Cergatic Jessu Christoc garaitu baizu, gurucean bere erioce Sanduaren medios.
 P. Gruce Sandua adoracen duzularic nola erratenduzu? /410/
 R. Adoracen ta bediquacen zaitut Jessu Christo nere Jauna Cerengatic gruce Sanduaren medios erredimitu baizindue mundu gucie. //
 P. Christioa vere entendamentura ellegacen delaric cembat gauza dago obligaturic saquitera?
 R. Lau jauna. P. Cein dire? /420/
 R. Len dabisicoa, saquitea cer bear duen siñestatu; bigarrena, saquitea cer bearduen escatu; irugarrena saquitea cer bearduen obratu; Laugarrena, saquitea cer bearduen errecibitu.
 P. Nola saquiñendu cer bearduen siñestatu?
 R. Daquizquigularic Credo edo Artículo fede Sanduscoac.
 P. Nola saquiñendu cer bearduen escatu?
 R. Daquizquigularic Aita gurea, Ave Maria, eta Elizaco gañeraco oracioac. /430/
 P. Nola saquiñendu cer bearduen obratu?
 R. Daquizquigularic Jangoicoaren Leguesco Amar Mandamentu Sanduec, //
 Elizaco borzac eta obra Misericordiascoac.
 P. Nola saquiñen dugu cer bearduen errecibitu?
 R. Daquizquigularic Elizaco zazpi Sacramentu sanduac /440/
 P. Norc erran zuen Credo? R. Amavi Apostoloec.
 P. Certaco? R. Gu fedean (eracusteco) informaceco.
 P. Eta guc certaco erraten dugu? R. Fede duguna confesaceco.
 P. Cer da fedea? R. Ycusigabe siñestacea.
 P. Ycusi zinduen Jesu Christo jayocen? R. Ez jauna /450/
 P. Ylzen edo Erresucitacen? R. Ez jauna. //
 P. Ygaten Ceruetara? R. Ez jauna.
 P. Siñestacenduzu? R. Bay jauna.
 P. Cergatic?

- R. Cergatic Jangoicoac errevelatu baizio Eliza Ama Sanduari, eta Eliza Ama Sanduac ala eracustendigu guri /460/
P. Cer gauza dire Christioac bezala dituzunac eta siñestacen dituzunac?
R. Eliza Ama Sandu Erromacoac dituenac eta siñestacen dituenac.
P. Cer gauza dire zuc eta Eliza Sanduac ditucenac eta siñestacen dituzenac?
R. Artículo fede Sanduscoac principalmente Credoan dauden bezala.
P. Cer gauza dire Artículo fede Sanduscoac? /470/ //
R. Dirade fede Sanduco misterio principalenac.
P. Certaco dire Artículo fede Sanduscoac?
R. Emateco noticia distinto gure Jaun eta Jangoicoas eta Jesu Christo gure Erredentoreas.
P. Nor da Jangoicoa?
R. Da gauza bat ain excelentea eta admirablea cein eran eta pensatu daitequena. Jaumbat infinitamente ona, podoroso, sabioa, justoa, principio eta fin gauza guciena /480/
P. Non dago Jangoicoa?
R. Lecu gucietan especialmente Ceruan eta Aldareco Sacramentu Sanduan.
P. Suan dago? R. Bay jauna. P. Errecenda? R. Ez jauna. //
P. Urean dago? R. Bay jauna. P. Busticenda? R. Ez jauna.
P. Cergatic? R. Cergatic baita Espiritu puroa /490/
P. Nor da trinitate jaun podoroso?
R. Da Jangoicoa bera, Aita, Semea, eta Espiritu Sandua, iru Persona distintoac eta Jangoico verdaderoat. //
P. Aita Jangoicoa da? R. Bay jauna.
P. Semea Jangoicoa da? R. Bay jauna.
P. Espiritu Sandua Jangoicoa da? R. Bay jauna. P. Yru jangoico dire?
R. Ez jauna, baicic iru Persona distinto ta Jangoico verdaderoat. /500/
P. Aita Semea da? R. Ez jauna.
P. Espiritu Sandua (Jangoicoa) da Aita edo Semea? R. Ez jauna.
P. Cergatic?
R. Cergatic baitire iru Persona distintoac eta Jangoico verdaderoat. //
P. Nola da Jangoico gucis poderoso?
R. Cergatic vere podores eguiten baitu nai duen gucia.
P. Nola da Criadorea? /510/
R. Cergatic deusecetic criatu baizitue gauza guciac.
P. Nola da Salvadorea?
R. Cergatic ematembaitu gracia eta becatuen barcacioa.
P. Nola da Glorificadorea.
R. Cergatic ematembaitio gloria arren graciën perseveracen duenari.
P. Badu Jangoicoac corpuzeren figureric guc bezala? /520/
R. Jangoico bezambates ez Jauna, cergatic baita Espiritu puroa, baña bai guizon bezambates.
P. Yru Persona Divinoetatic cein eguince guizon? //
R. Bigarrena baita Semea.
P. Aita eguince guizon? R. Ez jauna.
P. Espiritu Sandua eguince guizon? R. Ez jauna.
P. Nor eguince guizon bada?

- R. Solamente Semea cen guizon eguñic deicendena Jesu Christo. /530/
 P. Nor da Jesu Christo?
 R. Da Jangoicoaren Seme vicié guizon eguincena gu erredimiceagatic eta nola bici beardugun eracusteagatic.
 P. Cer erran naidu Jesus? R. Salbadorea.
 P. Certatic Salvatu guinduze?
 R. Gure becatuetatic eta demonioaren cautiveriotic. /540/
 P. Cer erran naidu Christo? R. Ungitue.
 P. Certas icence ungitue?
 R. Espiritu Sanduaren gracias ta dones. //
 P. Christo gure jauna nola izanze concebitue eta nola saiocen Virgine Maria gandic?
 R. Eguiten zuelaric Jangoicoac obra milagrosoa.
 P. Arren Ama Sandua beti gueldituce virginic? /550/
 R. Bay jauna perpetuamente.
 P. Trinitateco iru Personetatic cein hilce? R. Semea jauna.
 P. Non ilce? R. Grucean Jauna.
 P. Cer gatic nay izanzue ilcea gurucean?
 R. Gu becatutic eta eriocetic libraceagatic.
 P. Cer eguince Anima Sandura?
 R. Jausice limboetara. /560/
 P. Nola jausice? R. Usten zuelaric Corpuza gurucean // Unituric divinidad Sanduarequi, alaber jausice Anima Sandu ure divinidaderequi verarequi.
 P. Noiz erresucitace? R. Ylta irugarren egunean.
 P. Nola Erresucitace?
 R. Juntacen cituelaric vere corpuz eta Anima gloriosa ez berrisilceco. /570/
 P. Noiz igance Ceruetara? R. Ylta verroqueigarren egunean.
 P. Nola igance?
 R. Vere virtute propios, niorc lagunic eguin bague erematen zituelaric vere compañian, limbotic atracituen Anima Sanduaieci, eta Jartcen Aita eternoaren escuietaco aldean eta arren igualdadean. /580/
 P. Cer naidu erran dagola Jarriric Aita eternoaren escuietaco aldea(n) // eta arren igualdadean?
 R. Jangoico bezambates duela igual gloria Aitarequi ta Espiritu Sanduarequi; guizon bezambates ez amberce baña bay Ceruan diren Sandu eta Santa guciec baño yago.
 P. Cer da eliza? /590/
 R. Da Christo fiel gucien junta ta congregacioa, ceñen burua baita Aita Sandua Erromacoa.
 P. Nor da Aita Sandua?
 R. Da erromaco Pontifice Christoren vicarioa lurrean dagona, ceñeri gaudede obligaturic obedecicera.
 P. Cer naidu erran Sanduen Comunioa? /600/
 R. Christo fiel bat dagolaric estadusco gracion izaindela participante, verce Christo gucien obra onetan corpuz bateco miembroac becala cein baita Eliza. //
 P. Cer naidu erran becatuen barcacioa?



50. eta Dinen Teus. 50

Tece Maria.

Amoriar Jainakaitza Maria, gra-
 tias telea, Jaina de Barrogi, deus.
 tua eua Tece euren erdean, eta
 dedikatua za, eate onaketa frute de
 dicatua. Teus. Santa Maria, lau-
 pizicaren Teus, eate obis equitocan
 ga dectarengate, eray eta deti gu-
 ra orico erduar Amen. Teus. 6

Credo.

Ne sinuacendut. Sanguis. Etia gu-
 ar, pedenarayan baitan, Coruaren, eta
 lamayan Cradarearen baitan, eta lau-
 Christe arren seme. Lauu batorayan
 baitan, eate conchita daice Teus
 uirginaren entructan. Spiritu
 Sanduaren obas eta virtute, ja-

pace uirgine Mariaren gaudic pa. u
 fatucela pace, Teoreto, Teus. Ma-
 ri, Teuaren, manaren aspar, gurua
 eon, crucificatucate, ilate, orizate,
 Jauche imbuctan, han zauden. Tu-
 me. Sanduen atreuz; ilte urgaros
 egnan orucitatucata, ilten or-
 tate uicien oron, igance Coructara,
 an degola jariri, Etia etnoaren
 ocycetas aldan, eta arren igald-
 Teus, uondic etrico baita agyon
 uicico egnan onen ta garben
 jagacera. Ne alaber sinuacendut
 Spiritu Sanduaren baitan, Etia Teus
 Sandu Catholico Sanduen comunio-
 an, dectareu batorayan, amonaren
 erurayan uci. secularayan. Te. 7

R. Elizac dauzquiela medioac eta erremedioac gure becatuen barcaceco, oiec dire confesioa eta Elizaco zazpi Sacramentu Sanduac. /610/

P. Cer naidu erran araguien erresurecioa?

R. Azquen Juicioco egunean erresucitatu bear dugula orai tugun corpuz eta animequi.

P. Cer naidu erran vici seculacoa.

R. Vici beardugula seculaco seculorun Ceruan edo Ynfernuan non cabicenden gure suertea. /620/

Confesion

P. Cembat gauza beardirade saquin confesionbat eguiteco? R. Borz Jauna.

P. Cein dire? //

R. Lendabisicoa examen de conciencia. 2. Dolorea. 3. Proposito firme bat ez berris becatuac eguiteco. 4. Aita Confesoreari vecatuac confesacea. 5. Aita Confesoreac ematen duen penitencia cumplicea. /630/

P. Cer da exâmen de conciencia? R. Bere becatues ongui oraicea.

P. Nondic oroituco da becatues?

R. Errepasatus amar Mandamentu Sanduec, Elizaco borzac eta obra Misericordiascoac.

P. Cer da Dolorea?

R. Yduquicea damu Jangoicoa ofenditues.

P. Cembat modutara da dolorea? R. Bi etara. /640/

P. Cein dire. R. Contricioa eta Atricioa.

P. Cer da dolore Contricioa? //

R. Yduquicea damu Jangoicoa ofenditues, cergatic baita Jaumbat ain ona eta ain perfetoa.

P. Cer da Atricioa?

R. Yruquicea damu Jangoicoa ofenditues, cergatic becatuen medios galcembaitugu Ceruco glorie, meregicembaitugu Ynfernuco penac, edo cergatic becatue baita gauzabat ain itsucie. /650/

P. Cein da bi dolore oietatic oberena?

R. Contricioa Jauna.

P. Cergatic?

R. Cergatic Contricioac barcacen baitu becatuec Confesaceco deseoarequi; baña Atricioac ez tu barcacen confesatugabe. /660/

P. Formazazu Contricioa?

R. Nere Jaun eta Jangoico nic dut damu zure divina Magestadea // ofenditues cerengatic zaren Jaumbat ain ona; propositoarequi ez berris becatuac eguiteco, confesaceco, eta Confesoreac ematen diren penitencia cumpliceo.

P. Cer da Propositoa? /670/

R. Da arcea erresolucio edo determinacio firmebat ez berris becatuac eguiteco, lenago galdu gauren vicie, fama, honrra, eta guciec, ece verris Jangoicoa ofenditu.

P. Becatuac nola beardire Confesatu?

R. Cieruoac ciertoac becala, eta dudosoac dudosoac becala.

P. Cumplitu bearda Confesoreac ematen duen penitencia? /680/

R. Bay jauna.

P. Cer becatu da ez Cumplicea?

R. Penitencia gravea barimbada becatu mortala, Penitencia levea barimbada, becatu veniala. //

Comunion

P. Cembat disposicio requi beardugu comecatu? R. Biequi Jauna.

P. Cein dire?

R. Bata Animam partetic; ta bercea corpuzan partetic. /690/

P. Animam partetic? R. Jangoicoaren gracian joatea.

P. Eta Corpuzan partetic?

R. Jauesco amabietatic aurrera baruric joatea.

P. Cer dago Hostian?

R. Sacerdoteac Consagratioco itzac erranbañolen, ogui piscabat orancicbague: eta Sacerdoteac Consagratioco itzac erran esqueros, Jesu Christoren Corpuz preciosoa. /700/ //

P. Cer dago Calicean?

R. Consagratioco itcec erranbañolen Ardo chortabat; eta Sacerdoteac consagratioco itcec erran esgueros Jesu Christoren odol preciosoa.

P. Sacerdoteac particen duelatic Hostia Consagratua, particen da Christoren Corpuz?

R. Ez jauna. /710/

P. Sacerdoteac consagratu esqueros gueldicenda Hostian oguiaren sustanciaric?

R. Ez jauna.

P. Cer gueldicen dire bada?

R. Accidenteac cein baitire uriña, colorea ta gustoa.

P. Parteric aundienean, edo chiquienean dago Christo yago?

R. Gucietan igual jauna. //

Peticiones del Padre nuestro /720/

P. Norc erranzue Aita gurea?

R. Jesu Christoc vere ago sanduas.

P. Certaco? R. Guri oracio eguiten eracusteco.

P. Cer da oracio eguitea?

R. Jangoicoari viotza goiticea, eta merchedeac escacea.

P. Cein da oracioric oberna?

R. Aita gurea. P. Cergatic.

R. Cergatic erranbaizue Jesu Christoc vere ago sanduas Apostoloec escaturic. /730/

P. Cergatic yago?

R. Cergatic baititu zazpi peticio fundaturic caridadean.

P. Cein da lendabisico peticioa?

R. Santificabedi zure icenori. //

P. Cer escacen duzu peticio ortan?

R. Jangoicoaren icena icendadiela ezautue; eta honrratua mundu gucien.

P. Cein da Bigarrena?

R. Etorribedi zure erreñuori. /740/

P. Cer escacen duzu peticio ortan?

R. Jangoicoac erreinadezala gure animetan, mundu ontan gracias, eta verce munduen glorias.

- P. Cein da irugarrena?
 R. Cumplibedi zure vorondate sanduori Ceruan becala lurrean ere.
 P. Cer escacenduzu peticio ortan?
 R. Lurrean gaudenac eguindezagula Jangoicoaren vorondatea, bienaventuratuac Ceruan eguiten duten becala. /750/
 P. Cein da laugarrena?
 R. Eman dezagu egunorosco oguia. //
 P. Cer escacen duzu peticio ortan?
 R. Jangoicoac eman dezagula corpuceco mantenamentu combenientea, eta gracia, eta Sacramentuac Animarendaco.
 P. Cein da borzgarrena?
 R. Barcazazquiguzu guri gauren zorrac, guc nola barcacen baizquiotegu gu zorgaitusteneri. /760/
 P. Cer escacen duzu peticio ortan?
 R. Jangoicoac barcazazquigula gure becatuac, nola guc barcacen baizquiotegu agrabiatu, ta injuriatu gaitusten guciei.
 P. Cein da seigarrena?
 R. Ez gaizazula utci tentacioan erorcera.
 P. Cer escacen duzu peticio ortan?
 R. Jangoicoac ez gaizquiela utci erorcera, eta ez consenticera // pensamentu eta tentacio gaistoetan. /770/
 P. Cein da Zazpigarrena?
 R. Libragaizazu gaicetic.
 P. Cer escacen duzu peticiortan?
 R. Jangoicoac libragaizquiela Animaco eta Corpuceco gaitz, eta peligro gucietatic.
 P. Aita gurea erraten dugularic norequi minzacengada?
 R. Jangoico gure Jaunarequi. /780/
 P. Non dago Jangoico gure Jauna?
 R. Lecu gucietan, especialmente Ceruan, eta Aldareco Sacramentu Sanduan.
 P. Certaco erraten dugu Aita gurea Ceruetan zaudena?
 R. Jangoicoari biotza goiticeco eta merchedeac escaceco humildade, eta confianzarequi. //
 P. Cer naidu erran azqueneco itz arrec Amen? R. Ala icendadiela. /790/
 P. Eta Credoac? R. Ala siñestacen dugule.
 P. Cein dire Oracioac principalm(en)te errezacen dizquiogunac AmaVirginari?
 R. Ave Maria, eta Salvea.
 P. Norc erranzue Ave Maria?
 R. Ainguru San Grabielec etorri celaric Ama Virginaren visitacera.
 P. Norc erranzuen Salvea?
 R. Eliza Ama Sanduac dauque errecibituric. /800/
 P. Certaco? R. Ama Virginari merchedeac escaceco. //
 P. Ave Maria edo Salvea erraten dugularic norequi minzacengara?
 R. Ama Virginarequi.
 P. Nor da Ama Virginia?
 R. Da Andre bat gracias eta virtutes betea, Jangoicoaren Ama Ceruetan dagona.

- P. Eta aldarean dagona nor da? /810/
R. Da Ceruan dagonaren imagena, eta semejanza.
P. Certaco dago Aldarean?
R. Vra icusiric oraigaicen Ceruan dagonas, eta eguindezagun erreverencia.
P. Eguin bear diotegu oracio Sanduei ere? R. Bay jauna.
P. Cergatic? R. Cergatic baitire gure medianeroac Jangoicoaren aurrean.
P. Cer gauza dire Ainguiruac? /820/ //
R. Dirade Espiritu bienaventuratuac Ceruan daudenac Jangoicoas gozacen.
P. Certaco criatucitue Jangoicoac?
R. Eternidade gucian bera alabaceco eta bedeicaceco.
P. Certaco yago?
R. Vere Ministroac bezala Eliza governaceco, eta guizonac guardaceco.
P. Bauzu zuc Ainguiru guardacoa?
R. Bay Jauna, eta guizon bacoachac du berea. /830/

Peticiones de los Mandamientos

- P. Cein da Jangoicoan leguesco lendabisico Mandamentue?
R. Jangoicoa onesicia gauza gucien gañetic.
P. Norc onesicendu Jangoicoa?
R. Arren Mandamentuac guardacen dituenac. //
P. Cer da Jangoicoa onesicea gauza gucien gañetic?
R. Nayago icetea galdu gauza guciac ece Jangoicoa ofenditu.
P. Certara yago obligacengaitu mandamentu onec? /840/
R. Jangoicoa bacarric adoracera, animaco, eta Corpuztceco erreverencie gucierequi, siñestacen eta esperazendugularic arren baitan fede vicierequi.
P. Norc eguitendu becatu onen contra?
R. Ydoloac, edo Jangoico falsoac adoracen dituenac, eta // aien baiten siñestacen dituenac.
P. Norc gueyago? /850/
R. Agüerotan siñestacenduenac, eta valiecen denac echiceries edo gauza superticiosoes.
P. Cein da bigarrena?
R. Juramentu eguiten duenac eguia bague, justicie bague, eta necesidad bague.
P. Eta becatue da eguitea juramentu vanoan creaturengatic?
R. Bay jauna, cergatic ayetan eguitenzayo juramentu Criadoreari. /860/
P. Cein da erremedio juramenturic vanoan etz eguiteco?
R. Acostumbrazea erratera bay, edo etz, Christoc eracustendigun bezala.
P. Cein da irugarrena?
R. Jayac, eta igandeac guardacea.
P. Norc guardacen ditu jayac, eta igandeac? //
R. Meza osoa enzutenduenac, eta trabajacen estenac necesidaderic bague. /870/
P. Cein da laugarrena?
R. Aita eta Ama, eta zarragoac honracea.
P. Norc honracenditu aita eta Ama, eta zarragoac?
R. Obedecicen socorricen, eta erreverenciacen dituenac.

- P. Norc berceric daude comprendituric Aita, eta Amas landara?
 R. Yago direnac adiñen, dignidadean, eta gobernuan. /880/
 P. Cein da borzgarrena?
 R. Etz nior ilcea, eta ez deseacea.
 P. Cer manacenzaigu mandamentu ontan? //
 R. Etz iori gaizquiric eguitea, etz ices etz obras, eta etz deseos.
 P. Cein da seigarrena? R. Luxuriasco becatutic apartacea.
 P. Cer manazen zaigu mandamentu ontan?
 R. Ycen gaicela garbiac, eta castoac pensamentuetan, itcetan, eta obretan.
 /890/
 P. Cein da Zazpigarrena?
 R. Etz niori deus ebastea, eta etz deseacea.
 P. Cer manazenzaigu mandamentu ontan?
 R. Etz quencea, ez iduquicea, eta ez nai izatea berceren gauzaric jabearen borondatearen contra.
 P. Cein da Zorcigarrena?
 R. Etz niori falso testimonioric goiti- //
 cea, eta etz guezurric erratea. /900/
 P. Cer manazenzaigu mandamentu. ontan?
 R. Ez eguitea juicio gaistoric proximo lagunaren contra, etz erratea, eta ez aicea arren faltac.
 P. Norc Austendu mandamentu au?
 R. Arracioaren contra juzgacenduenac, fama quencenduenac, secretue manifestacenduenac, edo guezurre erratenduenac.
 P. Bedracigarren eta Amargarren Mandamentuec cer debecacendigute?
 R. Desonestidadearen, eta haciendaren deseo desordenatuec. /910/

Peticiones de los Sacramentos.

- P. Cer gauza dire Sacramentuac? //
 R. Dirade señalebazuec Jesu Christoc eguinzutuenac guri emateco aien medios bere gracia eta virtuteac.
 P. Cer da gracia?
 R. Da itcete divinoa, ceñen medios eguitenda guizona jangoicoaren seme, eta Ceruco heredero.
 P. Cembat virtute ematendute Sacramentuec graciarequi batio?
 R. Principalmente iru virtute Theologalac, eta Divinoac. /920/
 P. Cein dire? R. Fedea, Esperanza, eta Caridatea.
 P. Certaco de Bautismoco Sacramentua?
 R. Becatu originala quenceco edo berce edocein arquicembada batayacendenaren baitan. //
 P. Cer gauza da becatu originala?
 R. Da becatuere ceñequin gucioc jayocengada heredaturic gure lendabico gure asoen gandic. /930/
 P. Certaco da confirmaceco Sacramentu Sandue?
 R. Gu Confirmaceco eta fortaleciceco Bautismo Sanduen errecebizen dugun fedeàn.
 P. Certaco da Penitenciaco Sacramentu Sandua?
 R. Bataiatues gueros eguintugun becatuac barcaceco.
 P. Cer becatu dire oyec?

- R. Mortaleac baita benialeac ere.
P. Cer da becatu mortala? /940/
R. Da erratea, eguitea, pensacea, edo deseacea. gauzarembat Jangoicoaren leguearen contra, materia grabean.
P. Cergatic deicenda mortala?
R. Cergatic hilcembaitu eguitenduenaren Anima.
P. Cembat parte ditu penitenciaco Sacramentuac quenceco becatu mortala?
R. Yru Jauna.
P. Cein dire?
R. Biotceco Contricioa, agosco Confesioa, eta obrasco satisfacioa.
P. Eta becatu mortalean erorcendenac biardu berla confesatu?
R. Ongui lizaque baña etz ta preciso.
P. Cer eguinbeardu bada?

LABURPENA

Ukar Itzarbeibarrean aurkitutako euskal doktrina eta sermoi baten zatia dakartza idazlanak. Eskuizkribu argitaragabeak dira biak. Gaur egun euskaririk mintzatzen ez den lurralde bateko lekukotasunean datza bere garrantzia, eta interesgarria da, bestalde, liburuskan agertzen den hain beranduko data, 1865. urtea alegia. Testuen hizkera Iruñean eta Iruñerrian mintzo zenaren antzekoa da.

RESUMEN

El trabajo presenta el texto de un catecismo manuscrito vasco y el fragmento de una homilía localizados en Ukar (Valdizarbe). El interés del documento radica en el carácter testimonial del mismo, por tratarse de una zona en la que ya no se habla euskera, y no deja de ser significativa la fecha tardía, 1865, que registra el cuaderno. El lenguaje es semejante al que se hablaba en Pamplona y su comarca.

RÉSUMÉ

Ce travail présente le texte d'un catéchisme manuscrit basque et un fragment d'une homélie trouvés à Ukar (Valdizarbe). L'intérêt du document se trouve dans son caractère testimonial, puisqu'il s'agit d'une zone dans laquelle on ne parle pas la langue basque. La date enregistrée dans le cahier est toujours significative. Le langage est similaire à celui parlé à Pampelune et aux alentours.

ABSTRACT

This study offers the text of a catechism hand-written in Basque together with a fragment of a homily, both found in Ukar (Valdizarbe). The interest of the document lies not only in its symbolic importance, the area being one in which the Basque language is not spoken, but also in the fact that the notebook bears the date 1865, which can be regarded as significantly contemporary. The language used is similar to that spoken in Pamplona and district.